

Ihesbide Scape Room inklusiboa gauzatzeko, funtsezkoa da komunikazio-estrategiak zuzenean zein zeharka jendearengana bideratzea, irisgarritasuna bermatuz. Helburua bezeroekin harreman sendoak eta hurbilak eraikitzea da, gure proiektuari buruzko informazio argia eskainiz eta haien zalantzak eta kontsultak argitzeko prest egonez. Horretarako, baliabide eta alternatiba batzuk planifikatu ditugu, bezero guztientzako eta etorkizuneko bezeroak izango direntzako komunikazio-esperientzia arina eta eraginkorra erraztuko dutenak.

Komunikazio estrategiak:

Gaur egun ezagunenak eta eskuragarrienak diren plataforma digitalak baliatuko ditugu. Horien artean, TikTok, Instagram eta WhatsApp bezalako sare sozialak erabiliko ditugu. Sare horiek adin-talde eta profil desberdinek erabiltzen dituzte, eta, gainera, denbora errealeko interakzio maila handia ahalbidetzen dute. Kanal horien bidez, Scape Room-ari buruzko eduki erakargarri eta garrantzitsua partekatuko dugu, eguneratzeak, ekitaldi bereziak, promozioak eta kontsulta ohikoenei emandako erantzun azkarrak barne.

Webgunean, proiektuari buruzko informazio zehatza aurkituko dute: agertokien deskribapenak, ordutegiak, tarifak, gomendioak eta irisgarritasun-araudiak. Gainera, harremanetarako hainbat metodo ere jarriko ditugu, hala nola, telefono-zenbakia, posta elektronikoa eta gure sare sozialetarako lotura zuzenak, bezero guztiek gurekin komunikatzeko modurik erosoena izan dezaten.

Horrez gain, informazio-materialak erabiliko dira, hala nola kartelak, eskuorriak, triptikoak eta QR kodeak. Material horiek pegatina eta liburuxka inprimatuen formatuan egongo dira eskuragarri. Gainera, material horiek estrategikoki jarriko dira Bilboko hainbat kokalekutan, eta modu planifikatuan banatuko dira. Aldi berean, beste kanal batzuen bidez, Euskal Herriko tokiko irratia barne, baita aliantza daukagun elkarte eta ikastetxeetan ere, batez ere Bilbon eta inguruetan. Azkenik, ekintza horiek ahozko informazio-saioekin osatuko ditugu, informazioa modu argi eta zuzenean komunitatera iristen dela bermatzeko.

KANALAK	DESKRIBAPENA
Gmail-a	Izandako galderak egiteko sare moduan erabiliko dugu.

TikTok	Bideoak igoko ditugu informazioa, eduki erakargarriak, ekitaldi bereziak eta promozioak erakutsiz.
Instagram	Etorritako pertsonen bideoak eta argazkiak igoko ditugu lesbide nolakoa den erakusteko eta promozioak eta ekintza bereziak erakusteko.
WhatsApp	lhesbideren kontsulta ohikoenei emandako erantzun azkarrak emango ditugu.
Facebook	Etorritako pertsonen bideoak eta argazkiak igoko ditugu lhesbide nolakoa den erakusteko eta promozioak eta ekintza bereziak erakusteko.
Webgunea	Proiektuari buruzko informazio zehatza aurkituko dute: agertokien deskribapenak, ordutegiak, tarifak, gomendioak eta irisgarritasun-araudiak
Qr-ak	Plataforma digitalean txertatuko ditugu eta fisikoki banatuko ditugu.
Kartelak, eskuorriak, triptikoak	Bilboko puntu desberdinetan itsatsi, eman eta utziko ditugu, pertsonak informazioa edukitzeko.
Ahoz ahokoa	Elkarte eta eskola ezberdinetatik gure proiektua aurkezten, harremanetan jartzen eta informazioa zabaltzen egongo gara aliantzak sortuz.